

INTERES TASA MAILEGU ERAGIKETETAN:
LUKURRERiarekin BUeltAKA

2014-2015 IKASTURTEKO

HASIERAKO IKASGAIA

HIZLARIA:

RAFAEL SANTAMARÍA AQUILUÉ IRAK. DK.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO

FINANTZA EKONOMIA ETA KONTABILITATEKO KATEDRADUNA

**INTERES TASA MAILEGU ERAGIKETETAN:
LUKURRERIAREKIN BUELTAKA
2014-2015 IKASTURTEKO
HASIERAKO IKASGAIA
HIZLARIA:
RAFAEL SANTAMARÍA AQUILUÉ IRAK. DK.
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO
FINANTZA EKONOMIA ETA KONTABILITATEKO KATEDRADUNA**



Iruñean, 2014ko irailaren 5ean

Argitaratzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Koordinazioa: Komunikazio Zerbitzua
Fotokonposizioa: Pretexto. pretexto@pretexto.es
Inprimatzailea: Ona Industria Gráfica
Lege gordailua: NA 1380-2014
Banaketa: Argitalpen Atala
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadiko campusa
31006 Iruñea
Faxa: 948 169 300
Posta: publicaciones@unavarra.es

Nafarroako Foru Erkidegoko lehendakari andrea,
Errektore jaun txit garaia,
Agintariak,
Unibertsitate Komunitateko kideak,
Jaun-andreak:

Hasierako ikasgai honen izenburua hau da: *Interes tasa mailegu eragiketetan: Lukurreriarekin bueltaka*.

Ikasgaia hasi baino lehen, lukurreria hitza zein zentzutan erabiliko den argitzea komeni da. RAEren hiztegiak lau adiera ditu: «1. Diruaren edo salgaien truke lortzen den interesa mutuo edo mailegu kontratuan; 2. Kontratu hori bera; 3. Gehiegizko interesa mailegu batean; eta 4. Zerbaitetik ateratzen den mozkina, emaitza, utilitatea edo gehikuntza, bereziki gehiegizkoa denean». Hirugarren eta laugarren adierak dira ohikoenak egun, eta lukurreriazko maileguen baliogabetasunari buruzko 1908ko uztailaren 23ko Azcárate Lege indardunarekin bat datozenak. Lege horrek zehaztu egiten du «mailegu kontratu oro, zeinetan interesa diruak ohikoa duena baino nabarmen handiagoa baita, eta ageriki neurritz kanpokoa kasuaren inguruabarrei begira, edo halako baldintzapean egina, non kontratu bidegabea baita». Lehenengo adierak, berrikuspen honetan erabiliko dugunak, bere esanahi etimologikoari jarraitzen dio. Alde horretatik, paradigmaticoa da Luis de Molina (1535-1600) Salamancako

Eskolako kide ospetsuak bere 303. Disputan ematen duen definizio hau: «Y como de culto se deriva cultura, así de uso se deriva usura» (37. orrialdea)¹.

Finantza sistemari aipamena egitean esaten den lehenengo gauza da superabita duten unitate ekonomikoen (gizabanakoen, enpresen, administrazioen edo estatuen) aurrekia defizita duten beste unitate ekonomiko batzuetara bideratzeko modua ematen duen sistema (produktuak, bitartekariak, merkatuak eta erakundeak) dela. Defizita duten unitateek finantza-pasibo bat jaulki behar dute, etorkizuneko kutxako fluxu batzuk jasotzeko eskubide bat ordezkatzeko duena, eta pasibo hori superabita duten unitateek egingo duten inbertsioaren xede izango den finantza-aktibo bihurtuko da. Mailegu-eragiketak dira finantza pasibo/aktibo horietako batzuk. Egun, mendebaldeko kulturaren testuinguruan gutxienez, arrazoizkoa iruditzen zaigu finantza erakunde batera mailegua eskatzera doan pertsona batek bai maileguaren printzipala bai maileguak sortutako interesak ordaindu behar izatea. Are gehiago, muga nahiko zabal batzuekin², arrazoizkotzat jotzen da interesak libreki jartzea merkatuan. Baina egoera hori ez da, inola ere, arau izan historian zehar eragiketa horiei buruz egin diren azterketetan eta gogoetetan. Jarraian ikuspegi labur bat aurkeztuko dut lehenengo sumeriar idazkietatik Erromaren garaira arte, eta gero gaur egungo egoeraren azterketa bat egingo dut hiru erlijio monoteista handiek gaiari buruz egiten duten interpretazioaren bidez. Azkenik, amaitzeko, gaurkotasuneko kontu pare bat aipatuko ditut.

1. Lukurreria antzinatean

Antzinako Mesopotamiako lehenengo idazki kuneiformeek frogatzen dute bazirela mailegu kontratuak. Zehazki, Marc Van de Mieroop-en arabera (2005), maileguen lehenengo aztarnak sumeriar jatorrikoak dira. Sumeriarrek *māš* esaten zioten interesari. Arkumea izendatzeko ere erabiltzen zuten hitz hori. Izan ere, egile honentzat, oso litekeena da maileguen interesak artzaintzako komisioen pareko bihurtzea, komisio horiek eskuarki arkumeeekin ordaintzen baitziren. Normala da pentsatzea garai haietako mailegu kontzeptua eta gaur egun duguna ez datozela bat nahitaez, eta hainbat aldaera daudela, horietako batzuk gaur egungo kontzeptutik urrunago eta beste batzuk gertuago. Nolanahi ere, argi eta garbi frogatuta dago sumeriar aldian (K. a. 3000.

1. Ikus Luis de Molinaren *Tratado sobre los préstamos y la usura* lanean, Maxtor (2011).

2. Eskuarki diru-agintaritzak ezarritako gehieneko interes tasa batzuk daude. Gure herrialdean Espainiako Bankuak ezartzen ditu gehieneko tasak hainbat eragiketatarako.

urtetik K.a. 1900. urtera) bazeudela interesa zuten maileguak, hainbat arauketa politikok gehieneko mugak ezarri baitzizkioten interesari (hainbat alditan ohikoenak izan ziren % 33koa alean eta % 20koa diruan).

Hammurabiren Kodeak³, K.a.1800. urte aldera, espresuki jaso zituen interes tasako muga horiek, bai eta interesen eta interes horiek ez ordaintzeak zekartzan ondorioen arauketa zehatz-zorrotza ere. Zehazki, 52. Legeak zorraren itzulketa nahitaezkoa dela azpimarratzen du. Honako hau ezartzen du espezifikoki: «Errentariak garia edo sesamoa loratzea lortu ez badu ere, ez du horrek gutxiago behartzen bere betebeharrak betetzera». Bestalde, 50. Legeak honako hau xedatzen du: «Gariz edo sesamoz ereinda dagoen lursail bat eman badio, lurjabeak lursailean dagoen garia edo sesamoa hartuko du, eta kapitala eta interesa itzuliko dizkio negoziatzaileari». 51. Legeak, berriz, honako hau xedatzen du: «itzultzeko dirurik ez badauka, zilegi da negoziatzaileari sesamoa (edo garia) ematea, benetako tarifaren arabera, negoziatzaileak maileguz eta interesekin utzitako diruaren ordeaz». Nolanahi ere, baldintza hori aldatzen duten egoera batzuk onartzen dira. Zehazki, 48. Legeak honako hau ezartzen du: «Norbaitek kreditu bat baldin badauka interes eramaile den errentari baten gainean, ekaitzak lursaila urez estali eta uzta suntsitzen duenean, edo lehortek gariari ernamuntzen uzten ez dionean, errentariak ez dio ezein gari kantitatearik zor interesaren hartzaileari, bere taula bustiko du eta ez du ordainduko (dirutan) interesik urte horretan». Bereziki garrantzitsuak dira 89tik 96ra bitarteko legeak, mailegu-emailearen eta mailegu-hartzailearen arteko harremanak arautzen baitituzte espresuki. Bereziki, 89. Legeak jasotzen du interesen zilegitasuna Babilonian, eta gehieneko interes tasen muga aipatzen du: «Negoziatzaile batek garia edo dirua eman badu interesean, interes gisa 100 *sila* edo *qa* jasoko ditu gari *Gur* bakoitzeko. Dirua interesean eman badu, zilarrezko *sicle* bakoitzeko seiren bat gehi sei *še* jasoko ditu interes gisa». Tasa oso handia zen, % 33,3koa gariari dagokionez (*Gur* bat bolumen neurri bat zen, 300 *sila*ren baliokidea Babilonian) eta % 20koa diru-maileguei dagokienez (seiren bat gehi 6 guztira 36 ale edo *še* dira, mailegatutako *siclo*aren % 20, *sicle* edo *siclo* bat 180 *šer*en baliokidea zen pisu neurri bat baitzen). Van de Mieropen arabera (2005), baliteke zilarrean emandako maileguetako interes-tasak metalezko neurrien sistema hirurogeitarraren aplikazioari jarraitzea: 60 *siclo*ren baliokidea da mina bat⁴. *Mina* batek *siclo* 1 interes sortzen bazuen hilabetero, urtebetean 12 *siclo* sortzen zituen, *mina* baten % 20 hain zuzen. Ale maileguaren azalpenak ez dirudi

3. *Hammurabiren Legeak*, (gaztelaniazko itzulpena, sarrera eta oharra, Gabriel Franco, 1962). Marc Van de Mieropek (2005) esaten du kodea kaltetua dagoela interesari dagokien zatian, baina kodearen berrosaketari esker bai zerealari, bai diruari dagozkien interesen muga itxurazko itzulpen bat egin da.

4. Aipatu den sistema hirurogeitarrari jarraituz, 60 *mina* eta *Talentu* bat baliokideak ziren.

hain erraza, baina egile honek dio, zereal maileguak uzta bildu baino lehen egin ohi zirenez (zerealak prezioak goian zituenean) eta uzta bildu ondoren ordaintzen zirenez (zerealak prezioak behean zituenean), litekeena dela interes tasen arteko aldean atzean kontu hori egotea, bai eta garraio kostuen arteko aldeak ere.

Antzinako Indian (K.a. 2000tik 1500era), aldiz, moralaren ikuspegitik gaitzetsi egiten ziren interesekin egindako maileguak, testu hinduista eta budistetan ageri denez. Nolanahi ere, Manuren legeek (K.a. 1500) interesak onartzen dituzte, eta soilik maila jakin batetik harago jarritako interesak gaitzesten dituzte. Lege horien zor-zigarren liburuan, 140. zenbakian, honela dio: «Dirua mailegatu zuenak, bahi bat baldin badauka, bere kapitalaz gainera, interesa jasoko du», eta 141. zenbakian, berriaz, «Edo bahirik ez badauka, ehuneko bi jasoko du hilean, jende zintzoaren bete-beharra gogoratuz; ehuneko bira jasotzen badu, ez baita irabazi bidegabeak izatearen errudun»⁵.

Antzinako Egipton ere interesek zilegi izaten jarraitzen dute, eta, horretaz gainera, hartzaileari bermeak ematen zaizkio. Izan ere, Asychisen legea⁶ aipatzen da. Hark kreditua sustatzeko, maileguan interesekin hartzeko eskubidea onartzen zuen, eta bahian aitaren momia uzten zen, bahiak xede ona izatearen baldintzapean. Lege horrek gehitzen zuen lur emateko eskubideak kenduko zitzaizkiola bahi hori berreskuratu gabe hiltzen zen zordunari⁷.

Txinan, diru papera⁸ lehendabiziko aldiz jaulki bazen ere, kreditu jarduera oso gutxi garatu zen oraintsu arte, eta monasterioetako bahi-dendek zeregin garrantzitsua izan zuten. Interesekin egindako mailegu baten lehen aipamenak K.a. 400. urtekoak dira. Babilonian bezala, interes-tasari gehieneko mugak jartzeko ezarri zen arauketa. Interes tasak aldaketa handiak izan zituen, hasierako % 33ko mailatik % 100-120ko mailetara, gure aroko VII. mendetik X. mendera. Handik aurrera eta Ming dinastia-

5. Hamargarren Liburuan, 115. zenbakian, esaten da ondasunak eskuratzeko legezko sei modu hauek daudela: oinordetzak, dohaintzak, aldaketak edo erosketak, klase guztientzat baimendutako moduak direnak; konkistak, soilik klase militararentzat baimenduak; mailegua interesekin, merkataritza eta laborantza, merkatarien klasearentzat baimenduak; pertsona ohoragarriek emandako opariak, Brakmanentzat baimenduak. Ikus *Manava-Dharma-Sastra. Leyes de Manú* V. García Calderónen gaztelaniazko itzulpena (1924).

6. *Biografía Universal Compendiada* (1830) (Ed. N. Oliva), liburu honen arabera K.a. 105. urte aldera Egiptoko errege izan zen Asychis.

7. Ikus Antoine-Yves Goguet, A.-C. Fugère (1794).

8. Diru hori zirkulazioan egon zen K.o. XI. mendetik XV. mendera arte (Ming dinastia) (Ikus W. N. Goetzmann eta K.G. Rouwenhorst, 2005).

ren garaian (1368-1644) interes tasak % 36 eta % 60 artean egon ziren, eta % 10-20ra jaitsi ziren Ching dinastian (1644-1912)⁹.

Mendebaldeko gure testuingurura itzuliz, Antzinako Grezian oso zabaldua zegoen mailegua interesekin. Izan ere, Solonen erreformara arte (K.a. 638tik K.a. 558ra), zilegi zen zorrak kobratzea zordunaren eta bere senitartekoen baldintzarik gabeko esklabotzaren bidez. Horiek ziren maileguen (alboko) berme komuna, haiek erreformatu ziren arte. Hala ere, Greziako filosofo handiek (Sokrates, Platon eta Aristotelesek, baina bereziki azken honek) pentsatzen zuten dirua fruiturik ematen ez zuen aktibo bat zela, eta, hortaz, dirua uzteak ez zuela bere zenbatekoa itzultzeko eskubidea ez zen beste eskubiderik sortu behar, eta beste ordainketa gehigarri bat egitea bidegabea zela uste zuten.

Erromatarren artean, *mutuum* (mailegua) izenekoaren arauketaren lehen garaian, hura ekonomia primitibo eta autarkiko batean egindako kontsumorako mailegu bat zenez gero, lotura pertsonalak zituzten aldean artean egin ohi zena, doakotzat¹⁰ hartzen zuten, hau da, interesik (lukurreriarik) gabekotzat. Diruaren erabilera orokortu zenean, *mutuum*arekin batera interes tasa baten eskakizuna ere zabaldu zen¹¹. Kontuan izanik jasotakoa itzultzea dela funtsean kontratua, interesak kontratuaren xedapen erantsietan gauzatu behar izaten ziren¹². Interesak kobratzea ohikoa zela ondorioztatzen da, beste behin ere, jakinik berariaz mugatu zutela interesen gehieneko zenbatekoa¹³. Komeni da aipatzea, oro har, interesak baliodunak zirela ausazko kontratuetan¹⁴, hau

9. Ikus S. Homer and R. Sylla (2005).

10. Ikus Olga Marlasca (2008).

11. María Salazarrek (1999) teoriaren eta errealitatearen arteko kontraesana erakusten du, errealtateak argi eta garbi erakusten baitu maileguak gehienetan interesekin egiten zirela.

12. Ikus P. Ourliac eta J. De Malafosse (1969).

13. Olga Marlascak (2008) jasotzen du salgaien bidezko mailegurako hileko % 1eko muga bat ezarri zuela Justinianok K.o. 528. urtean. Sumeriarren kasuan bezala, litekeena da goiko muga urteko % 12an jartzeko ideiarekin atzean zegoen arrazoia izatea hilean mailegatutako unitate bakoitzeko unitate txiki bat kargatzen zela, azken kasu honetan sistema hamartarrean. Babilonian ez bezala, Erroman interes tasen aldakortasuna askoz ere handiagoa izan zen, eta lotura zuzena zuen Erromak egindako konkisten bidez lortutako diru kopuruarekin.

14. Esaterako, *foenus nauticus*. Erromatar legediko instituzio bat zen, Greziako mundu juridikotik hartua, eta eragiketaren zoriak baldintzatzen zuen bere emaitza. Eragiketa arrakastatsua bazen, interesak kobratzen ziren, eta, porrot egiten bazuen, maileguaren printzipala eta interesak berreskuratzeko eskubidea galtzen zen. Ikus E. Gadea *et al.* (2007). Teknikoki maileguaren eta aseguruaren arteko nahasketa bat da. Justiniano enperadoreak ezarri zituen gehieneko tasak (IV. Kodea-Liburua, XXXII. Titulua, 26,1) «Zilegi den negoziazioaren batean aritzen direnek beren estipulazioa urteko % 6ra mugatuko dute, baina itsas mailegurako kontratuetan zilegi izango da kontratuak hileko % 1era arte estipulatzea». Ikus S. Blanco eta P. Carvajal (2001).

da, arrisku handiko kontratuetan. Mailegu-emaileak arriskua partekatzen zuen kontratu horietan, halako eran non kontratuaren xedea zen proiektuak porrot egiten bazuen, mailegu-emaileak bere dirua galtzen baitzuen, baina arrakasta izaten bazuen, interes handiak kobratzen zituen.

2. Lukurreria hiru erlijio monoteista handietan

2.1. *Kristautasuna*

Erljio handiek maileguetan interesak kobratzea gaitzetsi zuten beren lehenengo idazkietan. Hain zuzen, eliza katolikoarentzat bidegabea eta bekatuzkoa zen interes bat kobratzea maileguagatik. Bigarren Legean edo Deuteronomioren legeetan honako hau xedatzen da: «ez dizkiozu zure anaiari mailegatuko, direla diru korrituak, direla bizigaiak edo dela interesa sortzen duen beste edozein gauza» (Deut XXIII, 20-24). Hori kristau doktrinarekin lotua zegoen: «eta eman maileguz ordainari begiratu gabe» (Lukas 6, 27-38)¹⁵. Horrek guztiak interesekin hitzartzen ziren maileguak gutxi-asko espresuki gaitzestea ekarri zuen, eliza katolikoaren pentsalari handien bermearekin¹⁶. Erdi Aroan elizak argudio horri eutsi ez ezik, sendotu ere egin zuen¹⁷. Hain zuzen, Santo Tomas Aquinokoak, aristoteliar iturrietatik edanez, lukurreria esaten zion mailegu batengatik edozein interes-tasa kobratzeari. Beraz, sortutako kaltearen ordain gisa onartzen zen interesa; ez, ordea, lortu gabeko irabaziaren ordain gisa. Logika horri modu gehigarrian eusten zitzaion, zeren mailegua kapitalen denborarteko truke bat da. Elizaren arrazoiketan, denbora Jainkoaren on-

15. «eta eman maileguz ordainari begiratu gabe: handia izango da zuen saria eta», Ebanjelioa Lukasen arabera, 6, 27-38.

16. Komeni da aipatzea lehenengo urteetan aita santu batzuek debeku unibertsalaren alde egin zutela, eta beste batzuek interesen gehieneko mugak ezartzearen alde egin zutela.

17. Esaterako, San Buenabenturarentzat «kontratu baten mozarropean besteren gauzak bereganatzea zen» (ikus G. Moral, 1954). San Raimundo Peñafortekoa salbuespen bat izan zen, kontsumo mailegua eta ekoizpen mailegua bereizi baitzituen. Ekoizpen maileguari titulu estrintsekoak gehitu ahal zaizkio, mailegu-emailearentzat arriskua dakarten egoera jakin batzuetan interesa baimenduko dutenak (ikus Ramón Baucells, 1946). Rothbarden arabera (2006) XIII. mendean kanoniko batzuek lortu gabeko irabazia onartzen dute interesak kobratzeko arrazoi gisa. Bestalde, Martín Azpilcuetaren *Comentario Resolutorio de Cambios* (1556) testuarekin bat etorritik, Kaetano kardinalak (1468-1534) lortu gabeko irabazia baimendu zuen. Horrez gainera, industriarako emandako mailegua denean zilegi da «honenbesteko eperako mailegatutako honenbesteko kopuruagatik honenbesteko bat» jasotzea arriskuak hartzeagatik. Kontuan izan behar da frantziskotarrek Italian, XV. mendean, bahitetxeak sortu ziztuztenean, horrekin ere legitimatu egin zela nolabait interesen kobrantza, muga batzuekin, kudeaketa gastuak estaltzeko helburuarekin.

darea da, eta, beraz, ez da bidezkoa ustiatze partikular bat egitea, eta, hortaz, interesak kobratzea. Interesak kobratzea justifikatzeko lehenengo oinarri teorikoetako batzuen artean daude beharbada Salamancako Eskolaren erakusle nagusietako batek¹⁸, Martín Azpilcueta jaunak, doktore nafarra izenez ere ezaguna denak (XVI. mendea, 1492-1587)¹⁹ emandakoak. Egile horrek ekarpen garrantzitsuak egin zizkion ekonomiari. Hain zuzen, bera izan zen diruaren teoria kuantitatiboari hasierako ekarpenak egin zizkiona, eta erosteko ahalmenaren parekotasuna (edo prezio bakarraren legea) adierazteko erabili zuen. Bere hitzetan «... Dirua sal, truka edo beste kontratu batekin ordeztu daitekeen zerbait denez, salgaia da... Beraz, dirua ere garestitu egingo da eskaria handia bada eta gutxi badago»²⁰. Maileguren gaiari dagokionez, egile horrek onartzen du zilegi dela bankari batek komisio bat kobratzea maileguengatik, bidezko lansari bat jasotzeko; estatuarentzat denean, kopuruak eta denborak baldintzatuko dute zuzenean komisioaren zenbatekoa («Kargua zenbatekoa den, eta mailegua zein epetarako hartzen duten, aldagai horien arabera ordainduko dute haiek»)²¹. Ullastresen iritzian (1965), Azpilcuetaen ekarpenek aurkako jarrera garaikideak uztartzen dituzte, maileguren beharra eta egokitasuna justifikatu nahi dute, izan dezatela maileguez ordain bat, mailegu-emailearen lansaria (dirua lortu, lan egin, kezkatu eta arriskuak hartzeko premiatik eratortzen dena) bermatzeko, eta maileguaren onura

18. Salamancako Eskola izenekoaren ekarpenen garrantzia argi eta garbi nabarmendu zuen Marjorie Grice-Hutchinsonek, Friedrich von Hayeken dizipuluak, Espainiako pentsamendu ekonomikoari 1177tik 1740era aztertzen duen liburuan. Lana 1978an argitaratu zuen.

19. Martín Azpilcueta honako hauen garaikidea izan zen: Domingo Soto (interesak kobratzea justifikatzen duen edozein argudioren aurkakoa) eta Juan Medina (mailegu-emaileak zenbateko bat jasotzearen aldekoa, ez mailegatzen duelako, baizik eta egiten duen lanarengatik, eta mailegu-emaileak zilegi du, errepublikak agintzen badio, dirua mailegatzea «honenbesteko eperako honenbeste emateagatik honenbesteko»). Jarrera eklektiko bat izan zuen, jarduera profesionalean interesak kobratzea justifikatu baitzuen, mailegu-emaileari lansari bat emateko helburuarekin. *Manual para Confesores y Penitentes* argitaratu zuen 1556an. Lan horri hainbat eranskin gehitu zitzaizkion (*Comentario Resolutorio de Cambios* eta *Comentario Resolutorio de Usuras*), eta geroago bereiz argitaratu ziren. Hala, esate baterako, CSICek argitaratutako alean esaten da «Testu kritikoak Salamancako lehen argitaldiari» (1556) jarraitzen diola, eta kontuan eduki direla geroago argitaratu ziren gaztelaniazko bederatzi argitalpenak eta portuges, italiara eta frantsesezko itzulpenak. Argitalpen horietako bat, aurkezpen honetan espresuki erabiltzen dena, Lizarran inprimatu zen 1565ean izenburu honekin: *Comentario Resolutorio de Usuras sobre el cap.j de la question iij de la xiiij causa*.

20. Schwartz irakasleak aipatu duenez (2003,25. orrialdea), 1556an Martín Azpilcuetak erakutsi zuen dirutik desberdina den erosteko ahalmen hori dela diruak trukean izaten dituen sariak eta deskontuak. Azpilcueta nominalista bat da, diruaren prezioa erosteko ahalmenaren bidez ezartzen duena, eta, hortaz, erosteko ahalmen horren bilakaerak baldintzatzen du diruaren balioa. Logikoa denez, Azpilcuetak ez zuen diru kopurua formalki lotu prezioen mailarekin, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenarekin, ez eta zirkulazio abiadurarekin ere.

21. Ikus M. Azpilcueta (1565, 64. orrialdea).

zenbatekoaren eta epearen arabera objektibatzeko²². Horrek iradokitzen duen ideia, atariko gutxienez, da dirua ondasun produktibo bat dela, teoria ekonomiko garaiki-dearen garapenean funtsezkoa den alderdia. Halaber interes-tasa diruaren erabilera prezioarekin lotzen du zeharka (diruak toki batzuetan beste batzuetan baino interes tasa txikiagoa duela aipatzean). Horrez gainera, gero berrinterpretazioaren bidez denbora lehentasunaren teoria osatzen lagunduko duten judizioak kontuan hartzen baditu ere «ez daukazu diruak ez du orain daukazu diruak adina balio», edo diruak gehiago balio du «diru eskasia handia dagoen tokian edo garaian», bere arrazoiketak ez du denbora hartzen kontuan, baizik eta espazioa²³, eta elementu horri esker ez du ukitzen eskolastikoen defendatutako printzipioa, hau da, diruaren emankortasunik eza denboraren ikuspegitik. Nolanahi ere, kontu horiek oinarri gisa erabili zituen austriar eskolak bere denbora lehentasunaren teoriak egiteko interes-tasaren modelizazioaren arloan. Prezio nominal eta erreal kontzeptuak ere landu zituzten egile eskolastiko horiek, eta Irwin Fisherren (1867-1947) interes tasaren teoriaren oinarriko elementuak osatzen lagundu zuten. Lehen aipatu dudanez, Salamancako Eskolak ez zuen irizpide argirik erabili, arrazionaltasun ekonomikoaren eta etika kristauaren arteko oreka zail bat defendatu baitzuen²⁴.

Salamancako Eskolaren gogoetak garatu ziren aldi berean, Lutero (1483-1546) eta Kalbinen (1509-1564) korrante protestanteek ere begiratu zioten lukurreriari maileguetan, bereziki kalbindarrek, lukurreriaren garrantzia bereizteko mailegu-hartzailea nor

22. Nolanahi ere, egile eskolastikoen maileguei egindako aipamenak ulertzea ez da erraza, kasu askotan mailegu kontzeptua erromatar garaietako «mutuo maileguarentzat» gordetzen baitute. Mailegu horren sorreraren atzean karitate edo familia arazoak zeuden, eta merkatariak egindako mailegua inbertsiotzat hartzen zen. Bereizketa horrek zalantzak sortzen ditu eragiketa mota honetako interesen ordainketa zein neurritan justifikatu zen zuzen interpretatzeko. «Mailegua, mailegua den aldetik, doakoa da: horregatik ez balitz, mailegua izateari utziko lioke; beste gauza bat izango litzateke: alokairu bat, inbertsio bat, etab... baina ez mailegu bat» (Juan Antonio Widow, 2004). Egileak honako hau aipatzen du: «erromatarren artean mutuoagatik (*mutuum*agatik) prezio bat kobratzeko joera orokortu zenean –eta prezio horri lukurreria deitu zitzaion–, ahozko akordio baten bidez hitzartzen zen prezioa. Baina *mutuum*aren kontratua, edo berez mailegua esaten dena, idatzia zen: hura berez doakoa zelako ezaguerak irauten zuen oroitzapenean». Mailegatzea –*mutuare*– gizarte bizitzako egintza bat da, eta egintza horren bidez besteekiko hurbiltasuna errealitate zehatz bihurtzen da. Santo Tomasek dioenez «Juduei debekatu egin zitzaion ‘beren senideengandik’ lukurreria jasotzea, hau da, juduengandik; horrek esan nahi du edozein gizakirengandik lukurreria jasotzea txarra dela, gizakiak oro ‘lagun hurko eta senidetzat’ hartu behar baititugu» (Santo Tomas, 34, 14 salmoa).

23. Ikus Ullastres (1965).

24. Beste egile batzuek, esate baterako Tomás de Mercado anaiak 1569an, erabat gaitzetsi zuten lukurreria, eta zordunaren aurkako laidotzat jo zuten. Ikus *Suma de Tratos y Contratos* liburuaren bigarren argitaraldia. Liburua Tomás de Mercado anaiak argitaratu zuen 1571an, eta Sánchez de Albornozek editatu zuen 1977an.

zen hartu baitzuten kontuan. Zehazki, Kalbinek²⁵ esaten du oso desberdina dela lukurreria aberats bati edo txiro bati kobratzea, aberatsak ez duelako arazo handirik izango ordaintzeko, eta, horrez gainera, etekina aterako diolako bere aberastasuna handiagotzeko. Alabaina, txiro bati lukurreria kobratzea karitatearen aurkako bekatua da²⁶.

Ondorengo mendeetako aurrerakada ekonomikoari esker justifikatu egin zen merkataritzako mailegua interesekin, pentsatzen baitzen hainbat kontzeptu, esate baterako, aukera kostua, sortutako kaltea eta lortu gabeko irabazia edo lortutako irabazia, arrazoizkoak zirela. 1821ean Ofizio Santuak onartu zuen mailegua interesekin, berez, ez zela bekatu. 1830ean Ofizio Santuak adierazi zuen aski dela legezko titulua, neurrizko interes baten zilegitasuna onartzeko²⁷. Marco Mastrofino apaizak, garai hartan argitaratu zen lan batean, dirua eta bere erabilera bereizten ditu, eta honako hau esaten du: «Aldiz, beraienarengandik desberdina den erabilera duten edo erabilera bera duten gauzetan, zilegi da gauza eta gauzaren erabilera aldi baterako ematea, hitzartzen badugu gauza bera, etorkizuneko beste erabilera batzuetarako, eta, baliokidea itzuliko zaizkigula, eta, horrez gainera, utzi dugun erabilera»²⁸. Benedikto XV.ak, 1917ko maiatzaren 27an emandako Zuzenbide Kanonikoaren Kodean, maileguari buruzko legeria malgutu zen, eta interesa eskatzea baimendu zen. Gaur egun lukurreria ez dago bekatu gisa tipifikatuta, eta zigorrik ere ez dago lukurreria egiten duenarentzat²⁹.

2.2. *Judaismoa*

Judaismoak ere generikoki gaitzesten du lukurreria. Pentateucoaren liburuetakoa batzuetan jasotako ahozko ohituretan txiro eta behartsuei zuzendutako interesak kobratzea kritikatzeko bada ere soilik, liburu horietako beste batean, Deuteronomioan, azaldu dudana bezala, «zure senideari» emandako mailegua interesekin gaitzetsi egiten da. Geroagoko testu sakratuetan (Misnáh, Talmud edo Torá) edozein interes mota jasotzea gaitzesten da. Nolanahi ere, Deuteronomioan azaltzen den gaitzespenaren atzetik auzi honen inguruan halako garrantzia izan zuen esaldi bat zeto- rren: «zilegi duzu kanpotarrari interesekin mailegatzea...» (Deut XXIII, 20-24). Alde horretatik, kanpotarrak fede senide ez ziren guztiekin parekatzea ahalbidetzen zuen

25. *L'usuraire buruz Opera Selecta*, II. lib. Munich, 1970, 391. eta 396. orrialdeak, Widowen aipatua (2004).

26. Luterok, aldiz, ez zuen onartu tratamendu desberdintasunik lukurrerian.

27. Ikus H. du Pasaje, «La doctrine a partir du XVI^e. Siecle».

28. Ikus Marco Mastrofinoaren *Tratado de la Usura* lanaren gaztelaniazko itzulpena. Mariano José de Ibarraingoitia da itzultzailea. Bartzelona 1859, 659 zk., 377. orrialdea.

29. Ikus J. Widow (2004).

judu interpretazioak. Beraz, testu sakratuetan lukurreriaz egiten den judu interpretazioa juduei aplikatzen zaie, baina ez kristauei edo musulmanei. Senide juduei mailegua interesekin emateko debeku hori luzaroan egon zen indarrean, eta komunitatearen onura orokorra lortzeko justifikatu zen. Irabaziei mugak ezarri zitzaizkien, eta hamarrenekin komunitateari laguntzeko betebeharra ezarri zen.

Israel desagertu eta diaspora juduaren ondoren, zerbitzu jakin batzuk mantentzeko beharrak behar finantzarioak handitu zituen eta, ondorioz, interesadun maileguen egitekoa, baita juduen artean ere, berraztertzea ekarri zuen. Horri gehitu behar zaio diruaren balioaren galeraren pertzepzioa (erreparatu ezen, moneta sistemak egiazkoak baziren ere, horrek ez zuela eragozten inflazioa, zeina pisu txikiagoko, eta, ondorioz, balio txikiagoko moneta jaulkipen bihurtzen baitzen). Horrek teorian zegoen debekua berraztertzerantz behartu zituen, testu sakratuen jatorrizko espiritua mantentzeko baino ez bazen ere. Bestalde, Erdi Aroan Europan, lurraren jabetza kristauena soilik izan zitekeen³⁰ eta artisau lanbideetarako sarbidea ez zen oso handia, zaila baitzen gremioetan sartzea. Horrek guztiak lotura handiagoa zekarkien kristauei zerbitzu sektorearekin (medikuntza, albaitaritza eta merkataritza, funtsean). Horrekin batera, kredituaren gero eta behar handiagoak, eta kristauek kreditua garatzeko zeuzkaten murrizketa handiak³¹, legezkoak eta moralak, maileguemaile juduen esku utzi zituen mailegu jarduerak, bereziki merkatariei, artisauei eta nekazariei zegozkienak. Gainera, aberastasuna maneiatzen kristauak utziak zirenez tradizioz, juduak bihurtu zituen herri-lanen, elizako lanen eta guduen ohiko finantzatzaile. Horren alde ere egin zuen atzerritar kontzeptuaren interpretazio zabalak, aukera ematen baitzuen gaintzeko kristauek zuten arazo morala³². Judutar oligarkia batean bildu zirenez kreditu-emaileak, eta beren jarduera handitu zenez, beren zordunen gorrotoa ekarri zien juduei, lukurreriarekin identifikatu zituzten, eta haiek jazartzea eta kanporatzea bezalako neurri populistei haizea eman zien horrek³³.

30. Juduen kreditu jarduera ezabatzeko xedez, eta ogibiderako beste bide alternatibo bat eskainita, arau honetan zenbait aldaketa egon ziren denbora tarte batzuetan. Horrela, esaterako, Alfonso XI.ak 1348an eskubidea baimendu zuen erosteko «sailak norberarentzat eta ondorengoentzat gure erresumako hiri eta herri guztietan» (ikus F. Baer, 1970).

31. Hala ere, horrek ez zuen eragotzi bankari kristauak egotea Lonbardian eta Italian, elizaren agintari ospetsuekin batera. Horiek, normalean, mailegu-hartzaile handiekin jarduten zuten.

32. Esan behar da, alabaina, badirela oinarria duten susmoak hainbat esparrutako ondareak, publiko zein pribatu, garairen batean juduek kudeatu zituztela, emaitzak hobereentzeko xedez. Kontuan hartu behar da mailegu jarduerak epaitzeko zorrotasuna nabarmen aldatzen zela, hainbat inguruabar zirela medio, baina, bereziki, oraingo esparru ekonomikoari dagokionez.

33. Errege Katolikoek Granadan agindu zuten juduen kanporaketa 1492. urtean Gaztelako eta Aragoiko Koroetatik. Portugalen, Manuel I. Erregeak 1497. urtean eta Nafarroan, Juan III. Albretekoak, 1498. urtean.

Espainiatik kanporatutako judu batzuk hainbat herrialdetara alde egin zuten (Afrika iparraldea, Portugal urte gutxi batzuk geroago kanporatu zituzten arte, otomandar Inperioa eta, bereziki, Grezia eta Turkia, bai eta Frantzia, Herbehereak, Italia eta Ingalaterra). Beren destino gehienetan, garapen ekonomiko eta finantzarioan lagundu zuten nabarmen. Bereziki aipagarria da Amsterdamen ezarritako komunitate sefardia, jatorri luso-espainiarrekoa zena. Hiri horretan sortuko zen, XVII. mendearen hasieran, lehen balio burtsa, hitzaren zentzu modernoan³⁴. Burtsa horrek bidea eman zien lehen bi akzio konpainia handi hauen akzio kotizazioari³⁵: Ekialdeko eta Mendebaldeko Indietako konpainia holandarren kotizazioari, eta, gainera, beren bonuen eta Anberesko Bankuko bonuen negoziazioaren kotizazioari ere bai. Merkatu horretan egindako eragiketen ezagutza xehea daukagu 1688. urtean argitaratu zelako burtsari buruzko lehen liburua (*Confusión de Confusiones*)³⁶, zeina, kurioski, gaztelaniaz idatzi baitzen, egilea, Josef de la Vega, espainiar jatorriko judua zelako, komunitate sefardi horretan bizi zena, bere aita bertan kokatu baitzen Inkisizioaren auzi bat zeukala, eta Espainiatik atera ondoren. *Confusión de Confusiones* da Josef de la Vegak liburuari eman zion izenburua, akzioen negoziarioaren zailtasuna azpimarratu nahian. Liburua «filosofo zorrotz baten, merkataritza diskretu baten eta jakinduriaz betetako akziodun baten arteko» elkarrizketa multzo bat bezala kontatua dago, «eta akzioen negozioa, jatorria, etimologia, errealitatea, jokia eta nahaspila deskribatzen du». Irakurketa oso gomendagarria da, eta aukera ematen digu erakusteko XVII. mendean akzioak eskudirutan negoziatzeaz gainera, bazegoela modua eragiketak epeka egiteko (CBOT Chicago Board of Trade³⁷ izenekoan zentzu modernoan 80. urtera arte agertu ez ziren errenta aldakorreko etorkizuneko merkaturen aurrekari argia) eta *opsies* izenekoak egiteko (1973.

34. Amsterdamgo Burtsa, zentzu hertsian, ez da lehenbiziko burtsa. Anberesko Burtsak izan zuen ohore hori XVI. mendean. 1527. urtean Carlos V.ak baimena eman zuen Anberesko Burtsa sortzeko. Era berean, aipatzen da XV. mendean sortu zela Brujasko Burtsa. Hala ere, haietako bat ere ez da Amsterdamgo Burtsa bezain modernoa, eta horregatik hartzen da munduko lehenbiziko burtsatzat.

35. Ulrike Malmendier-ek (Goetzmann eta Rouwenhorst-en, 2005ean) dio, egiatan, akzioen bidez eratutako lehen sozietateak *Societas Publicanorum* deiturikoak izan zirela (zergak biltzeko konpainiak). Egilearen ustez, posible zen akzioak transferitzea, eta horrek negoziatzeko aukera ematen zuen.

36. Antzinako gaztelaniazko liburua hainbat ediziotan dago. Zehazki, Asociación Española de Finanzas (AEFIN) elkarteak 2006. urtean argitaratutakoan. Gaur egungo gaztelaniazko edizio bat dago *Confusión de Confusiones José de la Vega, 1688* (Ricardo A. Forneroren bertsioan [2013], Universidad Nacional de Cuyo unibertsitatea, Mendoza, Argentina).

37. Chicago Board of Trade (CBOT) 1848. urtean sortu zen, zentzu modernoan munduan dagoen etorkizuneko eta aukeren merkatu antzinakoena.

urtean CBOE Chicago Board Options Exchange³⁸ izenekoan azaldu ziren akzioei buruzko opzioen aurrekari argia). Esan behar da aukera zegoela, halaber, salmentak zorpekoan egiteko³⁹ eta jada ez soilik tituluen mailegu modalitatean, adibidez, gure etxeko burtsan onartuak dauden eran. Hau da, posible zen akzioak saltzea izatezko jabetza eduki gabe. Hala ere, eragiketa hauek debekatu egin zituen azkenik Federikoren⁴⁰ araubideak, aldeztatik Anbereseko Bankuan gordailuan jartzea agindu baitzuen. Azkenik, dukaton izeneko akzioak ere negoziatu ziren (akzio arrunten hamarren baten baliokide ziren fikziozko akzioak zirenak). Liburua are interesgarriagoa da Amsterdamgo Burtsak 1688. urtean izan zuen krisia jasotzen duelako. Izan ere, aktibo finantzarioen burbuilaren lehen leherketari lotutako lehenbiziko burtsa krisia izan baitzen. Puntu horretan, interesgarria izan daiteke aipatzea lehen burbuilaren leherketa handia tulipanen merkatuan gertatu zela 1636-1637. urteetan. MacKay⁴¹ dioenez, 1630. urtean tulipanen prezioa % 500 hazi zen. 1635. urtean 40 erraboil 100.000 florinetan saldu ziren. Konparaziotarako, gurin tona batek 100 florin balio zuen, eta zortzi txerrik 240 florin. Tulipan erraboil bat 24 gari tonaren prezioan saltzera iritsi ziren, eta salmenta errekorra egin zuen Harlemgo erraboilak, *Semper Augustus* izenekoak, 3.000 florinetan saldu baitzuten. Burbuila 1637. urteko otsailean lehertu zen, eta bat batean prezioak jaitsi egin zituen burbuila izan aurretik zeukaten mailara, eta galera handiak ekarri zien espekulazaleei.

Gaurkotasun handiagoko garaietara hurbilduz eta, berriz ere, lukurreriaren gaia ardatz hartuta, esan behar da juduen arteko mailegu interesdunari asko lagundu ziola mailegua interesekin legeztatzeke modu estandarizatu bat ezartzeak (*Hetter Iskah*), elkarte bat egiteko baimena esan nahi duena. Horrela mailegu-emaileak diru kopuru bat maileguan uzten zuen, idazki baten bidez eta bi lekukorekin formalizatzen zen

38. Chicago Board Options Exchange (CBOE) 1973. urtean sortu zen, CBOTen *spinoff* gisa, eta hark jaulki zituen akzioen gaineko erosteko aukerako lehen 16 kontratu estandarizatuak (*call*) deitzen direnak. Akzioen gaineko saltzeko aukerakoak (*put*) estreinakoz jaulki ziren 1977. urtean.

39. CNMVren arabera, laburreko «zorpeko» salmentak dira, «saltzaileak aldeztatik saltzen dituen balioak ez dauzkanean, aldeztatik erosi dituelako, edo salmenta egin aurretik adostu den balio mailegu baten bidez, edo atzerazina den aldeztatik bihurtuta eskubidez, aukera edo eratorritako beste tresna baten bidez gauzatu delako. (CNMVren Batzorde Exekutiboaren Erabakia, 2008ko irailaren 22koa, laburreko zorpeko salmentei buruz). Espainian salmenta horiek debekatuak daude legez. Baimenduak daude laburreko «zor gabeko» salmentak, tituluen mailegu baten bidez lortutako akzioen salmenta direnak.

40. Josef de la Vegak dio zorpeko salmenta akzioak gordailuan eduki gabe egiten bada, «Aski da FEDERIKO izena aipatzea ezustekoak saihesteko eta jazarpenetatik defenditzeko». Erreferentzia hori, R.A. Forneroren ustez (2013), Federico Enrique de Orange-Nassauri dagokio (1584-1647), hark arautu baitzituen zorpeko salmentak.

41. Ikus García de la Rasilla A. (2012).

hori, eta mailegu-hartzaileak modua zuen bere jarduera kudeatzeko, eta behartuta zegoen diru kopuru hori itzultza eta interes⁴² jakin bat ordaintzera. Gaur egun formalitate hori bermatua dago, kontratuan *al-pi Hetter iskah* hitzak jartzen baitira zilegitasuna bermatzeko⁴³.

2.3. Islamismoa

Islamak lukurreria debekatzen du Koranean⁴⁴, eta debeku hori itzulkin finkoko edo aurrez ezarritako mailegu guztiei dagokie, eta zilegizat hartzen dira itzulkin aldakorrekokoak edo ez-ziurrekoak⁴⁵. Aipatzen den kontzeptua *Ribā* da (interesak baino kontzeptu zabalagoa dena, eta zilegi ez den aberasketa edo balioaren handitze guztiei dagokie). Hala ere, esan behar da horrek ez duela mozkin debekatzen. Debekatzen dena da denbora iragate hutsean oinarritutako gehikuntzaren kontzeptua (kontuan hartu ulertzen dela diruak berez ez duela baliorik) eta gauzatzen duen aktiboari lotu gabe dagoena. Hortaz, inbertsoreak (mailegu-emaileak) mozkinak eta galerak hartuko ditu bere gain. Argitu behar da *shari'ak*⁴⁶ onartzen bada ere ondasun batek balio desberdina izan dezakeela eskura edo epeka ordaintzen bada, horrek ez duela esan nahi desberdintasun hori interes arrunt baten parekoa (mendebaldeko zentzuan) dela, zeren aldaketa hori ez zaio egozten denbora iragate hutsari, baizik eta eskaintza eta eskariaren arteko prezio desberdinei. Kontzepzio horretan, aurreko garaietan erlijio kristau eta juduarentzat bezala, interesa duen mailegu oro, lukurreriazko mailegua da. *Ribā*-rekin batera, badira kontratu baten deuseztasuna dakarten hiru printzipio gehigarri: egotea *gharar* (aldean arteko informazio garrantzitsua asimetrikoa izatea) eta *maysir* (irabazi erraza edo zoritik eratorria) eta debekatuta dauden produktuetan edo sektoreetan inbertitzea (*haram*), esaterako, alkohola, armak, pornografia edo txerri haragia, besteak beste. Lehenbizikoa aplikatuzetik mendebaldeko testuinguruko aseguru eragiketen debekua dator (hondamendiei erantzuteko estaldura emateko xedez, elkarrekin elkarrekin sortu ahal badira ere). Bigarrenetik dator ausazko jokoaren debekua, baina baita inbertsioa erabat galtzeko gertagarritasuna duten espekulazio eragiketa guztiak ere, eta

42. Badira kontratu mota desberdinak, jardueraren galerak partekatze aukera ematen dutenak, eta ematen ez dutenak.

43. Ikus Openheimer, D. (2010).

44. Islamak *Ribā* zigortzen du. «Fededunok: izan Jainkoaren beldur eta uko egin lukurreriaren ondorioz zor dizuetenari. Ez baduzue hala egiten, jakin ezazue Jainkoaren eta haren Mezulariaren gerraz» (Korana 2,278).

45. Beti interesekin ziren ausazko erromatar kontratuen parekoak direnak.

46. *Shari'a al Islamiya* da zuzenbide islamikoaren funtsa. Lege musulmanarekin identifikatzen da.

horrek, de facto, debekatzen ditu espekulazio estrategiak deribatuekin, esaterako, opzioak eta etorkizunekoak. Bestalde, kontratuei buruzko bi printzipio gehigarri daude, posibleak eta galerak partekatze beharra, eta transakzio guztien erlazio printzipioa elementu ukigarri⁴⁷ batekin.

Kontzeptu-desberdintasun horiek, erlijio islamikoan indarrean dirautenak, eraman dute banka berria garatzera, banka islamikoa deitua, *shari'*aren aginduak betetzen dituen. Izan ere, batzorde ikuskatzaile erlijioso bat dauka (*shari'a scholars*), doktrina horren arabera eragiketen egokitasuna balioesten duena. Banku islamiko bat sortzeko lehen saioak berrogeigarren urteetan sortu ziren Malaysian, eta berrogeita hamarretan Pakistanen⁴⁸. Hala ere, Banku izeneko lehenbiziko instituzio islamikoa Egipton⁴⁹ sortu zen (Nasser Social Bank, 1971). Egia da, ordea, gizarte lanera bideratutako instituzio bat izan zela. 1974. urtean, hainbat herrialdek hala adostuta, sortu zen Garapenerako Banku Islamikoa⁵⁰. Ekimen pribatuaren bidez sortu zen lehen banku islamikoa Dubai Islamic Bank izan zen 1975. urtean. Pakistanen, 1979. urtean, interesak kentzeko lege baten aldarrikapena (aldi iragankor bat ezarri zuena 1985. urtera arte), eta Iranen, 1983. urtean, lukurriarik gabeko banku eragiketen beste lege batena, eta Sudanen, beste batena, hasieran 1984. urtean eta ondoren 1992. urtean, bultzada handikoak izan ziren horrelako entitateak sortzeko. Gero eta pisu handiagoa hartzen joan ziren, hala ere, nolabaiteko lehian beste herrialde islamikoetako banku tradizionalekin, esaterako, Malaysia, Bahrain edo Saudi Arabiakoeekin. Gaur egun, banku islamikoaren garrantzia oso handia da herrialde musulmanetan, eta badira ere mendebaldeko banku batzuen esperientziak, arau horietara egokitzen diren bankuak edo horien zatiketak sortzeko, eta ondorioz, banku islamikotzat har daitezke horiek. Erresuma Batuan 2004 eta 2005. urteetan sortu ziren Europako lehen bi banku islamikoak (Islamic Bank of Britain eta European Islamic Investment Bank), FSA Financial Services Authority⁵¹ izenekoak baimenduak. Beste alde batetik, Europako hainbat instituziok parte harte

47. Finantza-eragiketa islamikoen ikuspegi osatuagoa edukitzeko, legearen ikuspuntutik, G. Canalejo eta A. Cabellos-en dokumentua (2009) dago.

48. Ikus P. Sánchez (2006).

49. Banku islamikoaren kontzeptuaren barruan, banku hori bigarrena izan zen, zeren 1963. urtean Egipton sortu ziren Mit Ghamr aurrezki kutxak, mikrokredituak eskaintzen zituztenak (ikus *Islamic Finance Qualification, The Official Workbook*, 2007).

50. Banku horren webgunean dagoen informazioaren arabera, sortzeko erabakia 1973. urteko abenduan hartu zen, eta irekiera formala 1975eko urrian egin zen. Hala ere, egun bere 40 «urteurrena» ospatzen du, 1974-2014; hortaz 1974. urtea sorrera urteatzat har daiteke. Gaur egun 56 herrialdek osatzen dute. Ikus [http://www.isdb.org].

51. FSA da Erresuma Batuan ikuskaritza finantzarioa egiten duen erakunde autonomoa.

du banku islamikoekin hainbat produktutan, eta bonu islamikoen jaulkipenetan (*sukuk*). Europako beste finantza-instituzio asko ere bai (ABM Amro, Banque National du Paris, Deutsche Bank, HSBC, Lloyds...), *shari'*arekin bat datozen finantza produktuak eskaintzen hasi dira (leihatila islamikoekin lan eginez), eta horrek Europako⁵² banku jarduerari buruzko erregulazioa aldatzera behartzen du, are gehiago instituzio publikoek ere ikusten dutenean balizko inbertsore horien arreta atzemateko interesa. Horren harira, 2013ko urrian, *Financial Times* egunkarian azaldu zen Erresuma Batuak zeukan interesa jaulkitzeko lehen bonu subiranoa bonu islamiko moduan (*bond-like sukuk*)⁵³, 200 milioi libraren⁵⁴ zenbatekoan, Erresuma Batuan bizi diren 2,7 milioi musulmanen interesa eta horrelako finantza produktuetan interesa dutenak erakarri nahian.

Interesak hartu edo jasotzeko debekua dela-eta, banku islamikoan maileguak soilik izan daitezke doakoak (gizartearen onurara bideratuak badaude) edo finantzaketaren xedearen mozkinekin edo galerekin lotuak. Emaizarekiko lotura horrek ematen dio zilegitasun morala, eta horretan oinarritzen dira instituzio hauek egiten dituzten eragiketa guztien garapena. Zenbaitetan, horrek merkataritza-bitartekari bihurtzera darama bankua, erosle eta saltzaile baten artekoa, merkataritza-bitartekari lanagatik ordainsaria jasotzen duena, eta ez finantza-bitartekaritza egiteagatik. Helburu horretarako, banku islamikoak proposatzen du zorra sortzea egiazko aktiboak saltzearen bidez, zuzenbide islamiko tradizionalaren salerosketa-kontratu tradizionalak erabiliz. Laburbilduz, finantza islamikoetako kontratu guztiak oinarritzen dira galerak eta irabaziak banatzeko formuletan (*musharaka* o *mudaraba*), edo salerosketa kontratuetan (*iyara*, *murabaha*, *salam*, *istisna'a*, eta horietatik eratorritako beste batzuk). Edozein finantza-produktu islamiko, *sukuk* izenekoak (bonu islamikoak) barne, kontratu horietako batean oinarritzen da⁵⁵.

52. Banku konbentzionalen arrakasta nahiko mugatua da. Izan ere, HSBC banku islamikoan lider europarrak, 2012. urtean iragarri zuen ateratzen zela Erresuma Batua, Arabian Emererri Batuak, Bahrain, Bangladesh, Singapur eta Maurizio herrialdeetatik.

53. *Sukuk* deituak zenbait kontratu islamikotan oinarritutako errenta finkoko balioen jaulkipenak dira. Kontzeptualki bonu eta obligazioen baliokideak dira, baina adostutako epeetan ordainketa jaso beharrean, dauden ondasunen parte baliokide bat dauka edukitzaileak eta, ondorioz, horren emaitzak aktibo horien balioari lotuak daude, berari lotutako arriskuarekin eta mozkin / galerekin batera. Nola-bait aktiboak erabiltzetik eratorritako bonuen antzekoak dira, hauek ere kredituaren arriskua jasaten baitute. Hala ere, zenbait desberdintasun juridikoez gainera, kontuan hartu behar da *sukuk* izenekoan oinarritutako kontratuek *shari'*aren egokitasuna bermatzeko bost oinarritzko printzipioak bete behar dituztela.

54. Osborn, *London can lead the world as an Islamic financial hub*, FT October 28, 2013 [<http://www.ft.com/cms/s/0/42766334-3fc2-11e3-a890-00144feabdc0.html>].

55. Ikus C. De Anca (2014).

Merkatua osoa bada, teknikoki posible denez aurkitzea ausazko errenten eta egiazkoen arteko baliokidetasunak⁵⁶, kobrantza finko baten eta aldagarri baten arteko desberdintasuna (kapital galerarekin ere bai), agian, lotuagoa egon zitekeen mailegu-emailearen arriskurako herra / joera mailari, arrazionaltasun ekonomikoaren arrazoi hutsei baino. Izan ere, emaitza zeharo ziurgabeak eskaintzen dituzten produktuetatik errentagarritasun erabat finkoa eskaintzen duten produktuetara, aukera oso zabala dago eta, finantza-teoria ortodoxoaren testuinguruan, menderatzen ez diren alternatibak dira, eta horien hautaketa mailegu-emailearen espektatiben eta daukan arriskurako herra / joera mailaren mende dago, azken batean. Logikoa denez, argudio hauetara gai etikoak edo moralak ekartzeak funtsezko aldagai bat dakar, eta horren gainean ezinezkoa da logika orokor bat ezartzea. Horren harira, erlijio bakoitzak bere arau multzoa jartzen du, eta arau multzo horrek logika partikular bat eratzen du, eta logika horrek baldintzatuta gauzek balio bat agertzen dute, beste logika baten balio baldintzatugabearen edo baldintzatuaren oso bestelakoa. Horregatik, ez du merezi puntu honetan balorazio gehiago ezartzea, gizabanako bakoitzak, bere arau multzoarekin, egin ditzan bere egokitzapena, bere lehentasunak eta murrizketak.

3. Zenbait ohiko problema kontzeptual, interes motari dagokionez

Gure erreferentzia den mendebaldeko testuingurura itzuliz, oraindik ere badira aurreiritziak eta interes motari lotutako oinarrizko kontzeptuen nolabaiteko ez-ulertzea, eta mailegu-emailearekiko nolabaiteko prebentzioa, akusazioa ez denean, denboraren joanagatik, ziur asko, eta aurreiritzi horiek kulturara iragan direlako. Azalpen hau bukatzeko, horri buruzko pare bat adibide emango ditut.

3.1. *Moneta unitate nominalak eta errealak*

Familiakoen eta lagun arteko testuinguru berezian, esan dugun bezala, eskolastikoei defendatzen dute «espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste» itzuli behar harko litzatekeela. Baina, teknikoki zer esan nahi du baieztapen honek? Demagun erantzuna kokatzen dugula urte jakin batean, 1989. urtean, eta herrialde jakin batean: Argentina. Gizabanako eskuzabal batek urtearen hasieran maileguan ematen dio familiako kide bati 10.000 moneta-unitateren balioa. Urtearen buruan, mailegu-

56. Esaterako, *FRA* edo *swap* deituekin gertatzen den moduan interes tasen kasuan edo hainbat aktiboren geroko eta *forward*ekin.

hartzaileak 10.000 moneta-unitate itzultzen dizkio, bizi osoko esker onarekin eta bonboi kutxa batekin batera. «Espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste» itzuli al dio mailegu-emaileari? Galdera honi erantzuteko erosmen-ahalmena neurtu behar dugu denboraren bi une desberdinetan. Horretara hurbiltzeko, ohiko neurri bat erabil dezakegu, perfektua ez den arren: urtearteko inflazio-tasa, alegia. 1989. urtearen hasieran, mailegu-emaileak 10.000 moneta-unitate horien balioa zuten ondasunak erosi ahalko zituen. Urte horren amaieran, ordea, itzultitako 10.000 unitaterekin, urte hasieran erosi ahalko zituen ondasunen % 1,99 erosi ahalko zituen⁵⁷. Ondorioz, erantzuna argi dago. Bonboi kutxa ez dirudi, bada, nahikoa halako hondamendiari erantzuteko. Egindako lan onengatik (bereziki familiakoekin) pozik egotea aberasgarria izan daitekeela ukatu gabe, ez dago zalantzarik, aldeetako bati laguntzarren, 10.000 unitateren itzulketa egin duen mailegu-hartzaileak larriki kaltetu duela mailegu-emailea. Esan liteke muturreko adibide bat dela, eta ezin da ukatu halakoa dela, herrialde guztien urte horretako inflazio handiena bilatuz hautatu baita, WEO World Economic Outlook⁵⁸ datu basearen arabera. Nolanahi ere, Espainian kokatzen bagara, eta erabiltzen badugu 1980-2013 urteen artean jasandako inflazioaren batez bestekoa, itzultitakoaren erosmen-ahalmena soilik iristen da maileguan emandakoaren % 95,06ra, eta azken hamar urteetako inflazioarekin, % 97,59ra. Oinarrizko gaia da itzulketa zergatik egin behar den termino nominaletan (10.000 moneta-unitate) termino errealetan egin beharrean (urtebetera, maileguan emandakoaren erosmen-ahalmen berdina bermatzen dutenak) edo, gutxienez, espero den inflazioaren terminoetan, hori baita interes motaren oinarrizko osagaietako bat⁵⁹. Eta horrek ez du inolaz ere esan nahi ez zaiola mesedea egiten mailegu-emaileari. Izan ere, zero kostuarekin, kreditu arriskua hartzen zaio⁶⁰. Bide batez esanda, arrisku hori ez da

57. Goraka doazen herrialdeen inflazio maila, batzuetan, oso altua izan da. Hortaz, egungo inflazioa Venezuelen % 91,8tik gorakoa da urtearteko inflazio-tasan 2013ko apiriletik (*Infobae*, 2014ko maiatza). Inflazioa Argentinan otsailean % 30,1era iritsi da (*El País*, 2014ko martxoaren 17a) eta Brasilen % 6,28ra. Hala ere, 1989. urtean inflazioa Venezuelen % 81ekoa izan zen. Kopuru hori Latinoamerikako inflazioaren bosten bat besterik ez zen, batezbestekoa % 436,8koa baitzen. Urte horretan, Argentina, Peru eta Brasil izan ziren munduko inflazio handiena izan zuten herrialdeen zerrendaren buru, % 4.923,5eko, % 2.775,3ko eta % 1.972,9ko tasekin, hurrenez hurren. 1990eko urtarrilean, *Wall Street Journal*ek jakinarazi zuen Argentinan bankuek gordailutzaileei eskaintzen zieten hileko % 600eko interes tasa (ikus Sydney Hommer eta Richard Sylla, 2005).

58. Hala ere, hori ez da Armeniak 1993. urtean izan zuen % 10896,2ri dagokion serieetako gehienekoa.

59. Irwin Fisherrek (1930) bere *Teoría del Interés* lanean bereizi egiten ditu interes-tasa erreala eta interes-tasa nominala, eta adierazten du inflazioa duen ekonomia batean logikoa dela pentsatzea inbertsio-erabakietan kontuan hartuko dena interes-tasa erreala izango dela, eta ez nominala, hark ondasun terminoetan neurtzen baitu inbertsio-aukeraren kostua.

60. Hori da aldean arteko finantza-konpromisoak ez betetzeagatik eratorritako arriskua.

kontu hutsala izan, ikuspuntu historikotik begira. Zehazki, Hammurabiren Kodeak aukera ematen zuen zorduna hartzekodunari esklabo moduan salduz edo emanaz ordaintzeko zorra, Solonen erregulazioaren aurreko greziar legeriak bezala. Zuzenbide Erromatarrean ere Hamabi Taulen legeak ere, zorduna esklabo⁶¹ bihurtzen zuen eta, esan dugun bezala, antzinako Egipton *Asychnis* legeak ez zion aitaren momia ematen bere konpromisoak betetzen ez zituen zordunari, bahian utzita baitzeukan... Logikoa denez, gaur egun ondorio horiek leundu egin dira. Aldeek hartutako finantza-konpromisoak ez betetzeagatik datozen legezko ondorioez gainera, transakzioek *ex-ante* arrisku sari bat daukate, termino nominaletan adierazitako arriskurik gabeko interes tasari gehitzen zaiona, eta konpentsatzen duena partez edo osorik ez betetzea. Halaber, berriki sortu da zor mota jakin baten gaineko «kreditu aseguru» bat erosteko aukera (*Credit Default Swap* famatuak), eta logikoa denez, ez dute balio nulua. Hortaz, zergatik ematen du hain arrazoizkoa zorraren kitapena balio nominaletan egitea, ondorioz, mailegu-emailearentzat «kita» bat inposatuta (gainera zero kostuan behartzen zaio mailegu-emaileari arriskua hartzera eta aukera kostua bere gain hartzera)?

3.2. *Interes-tasaren aldakortasunaren mugak*

Bigarren gaiak maileguei lotutako gaur egungo beste alderdi bati buruz hausnarketa sorrarazi nahi du⁶². Berriki ebazpen judizial ugari eman dira «zoru-klausula» deitzen diren horiei buruz, eta abusuzko baldintzat hartu dituzte. Horrek eman dezakeen ideia da interes-tasaren aldakortasunaren muga horiek abusuzkoak direla legearen ikuspegitik, eta kontzeptualki justifikaziorik gabekoak ikuspegi teknikitik. Hala ere, termino orokorretan, baldintza hauek erabat justifikatuak egon daitezke ikuspegi tekniko batetik eta erabateko babesa izan dezakete gaur egungo lege esparruan. Beste kontu bat dira merkaturatze oker batetik, kontratuaren baldintzak ezkutatzetik edo ilun azaltzeagatik, edo bezeroari «doikuntza» ezegokia egitetik eratorritako kasu espezifikoak, dela konplexutasun zioengatik edo beren beharretara objektiboki egokitzeagatik, kasu zehatz horretan, baldintza horiek abusuzko bihurtuz. Haien arrazionaltasuna ikusi dugunez, onartzen badugu dirua maileguan hartzeagatik interes bat ordaindu behar dela, haren zenbatekoa ezartzeko arazoa sortzen da, ez hainbeste bere magnitudeari dagokionez, baizik eta bere erreferentziari

61. Ikus Patricia Zambrana (2001).

62. Eta ez naiz arituko hipoteka maileguen bermearen irismenari buruz Espainian, Estatu Batuetan ezarritakoarekin alderatuz, kontu hau, termino ekonomikoetan azaltzen erraza izan arren, erabat juridikoa baita, haren legeria zuzenean aplikatzetik eratoritzen delako.

dagokionez. Hau da, interes-tasa finkoa edo interes-tasa aldakorra ezartzea da arazoa. Ikuspuntu tekniko batetik, interes-tasa finkoa merkatuan epe horretarako ezarritako interes-tasa aldakorraren baliokidea da. Hau da, merkatuan egiten diren eragiketetan islatzen diren igurikapenak betetzen badira, bi tasa motek emaitza baliokidea emango dute denboran zehar. Hala ere, arriskua, mailegutik eratorritako ordainketen aldagakortasun terminoetan definituz gero (eta, jakina, ordainketa horiek interesen kontusailei eta zorraren printzipalaren amortizazioari lotuak daudela), desberdina da bi mailegu motetan.

Espanian lehen mailegu ia guztiak interes-finkokoak ziren, baina egoera horretatik beste egoera batera pasatu gara, zeinean mailegu ia guztiak interes-tasa aldakorrekoak baitira⁶³. Aldaketa honekin batera interes-tasak jaitsi dira, batasun ekonomiko eta monetarioaren hirugarren aldian sartzearen ondorioz. Horregatik aldaketa honek ez du erantzun gogorrik sorrarazi gizartean, nahiz eta mailegu-hartzaileek mailegua dela-eta ordaindu beharko dituzten kopuruak zehatz ez ezagutzearen abantailak eta desabantailak beren gain hartzen dituzten. Kontuan hartzekoa da ezen, interes-tasa harrigarriro baxuen testuinguruan, gaur egunekoa den bezalako batean, tasa aldakorreari dagokien interes-tasa finkoa askoz altuagoa izango dela; horri gehitzen badiogu finantzazio-epea luzeagoa izatea litekeena dela, mailegu-hartzaile gehienek nahia-go dute interes-tasa aldakorra⁶⁴. Egia da hori guztia balioetsi beharko litzatekeela mailegu horiek dakarten interes-arriskua kontuan hartuta, baina ez zaio jaramon askorik egiten, Espainiako legeek ez dutelako uste interes-tasaren arriskua kontratua egin baino lehen ematen den informazioan bildu beharreko informazio garrantzizkoa dela. Are gehiago, interes-tasa txikia den uneetan, Urteko Tasa Baliokidea (UTB-TAE) kalkulatzeko erabiltzen diren hipotesiak direla-eta, tasa aldakorreko maileguetan kostu txikiagoak lortzen dira, teorikoki, beren baliokideak liratekeen tasa finkokoetan baino⁶⁵. Gainera, interes-tasa aldakorreko maileguetan errazagoa da finantza-erakundeen interes eta likideziaren arriskuen kudeaketa. Hori horrela, finantza-erakundeek ere ez dute pizgarri askorik epe luzeko bestelako mailegu-tasak sustatzeko.

63. *Informe del Banco de España sobre determinadas cláusulas presentes en los préstamos hipotecarios* agiriaren arabera (2010eko maiatzaren 7koa da), 2009ko abenduaren 31an, interes-tasa finkoan gauzatutako etxebizitzetarako maileguen bolumena saldo biziaren % 3,2 baizik ez da; aldiz, % 84ren indizea urtebeteko Euriborra da, eta gainerakoena, merkatu hipotekarioen hainbat erreferentzia-indize (bankuen, kutxen eta erakunde guztien IRPH delakoa).

64. Esan behar da, baita ere, interes-tasa finkoek interes-arriskuen kudeaketa konplexuagoa eskatzen dutela bankuen balantzeetan.

65. Kreditu erakundeek hau agerian uzten dute, 2010eko maiatzaren 7ko *Informe del Banco de España sobre determinadas cláusulas presentes en los préstamos hipotecarios* agiriak biltzen duenez.

Finantza-berrikuntzari esker, posible izan da interes-tasaren arriskua kudeatzeko zenbait produktu garatzea, eta horrela egoera jarraitua izatea, interes-tasa erabat aldakorra izatetik hasi (aldakortasuna murrizketarik gabeko tasa aldakorrei lotua), eta tasa finkoa izateraino. Bertsio errazenen artean dago aldakortasun horri sabai bat jartzeko aukera (*cap*)⁶⁶. Sabai horren prezioak zerikusia izango du interes-tasak sabai horren gaineko balioak iristeko probabilitatearekin. Finantza-merkatuek produktu hauek negoziatu egiten dituzte, eta horri esker izaten dira merkatu prezioak lehiatzeko baldintza arrazoizkoetan⁶⁷. Beraz, sabai hori jartzea ezin daiteke doakoa izan; aitzitik, sari bat ordaindu behar da, zeina baita kota horren gaineko interes-tasak izateko arriskua ez izateko modua ematen duen opzioa ordaintzea. Sen hutsez, kopuru osagarri bat ordaintzen da, eta trukean sabaitik gorako interes-tasen gehikuntzetatik datozen kalteak saihesten dira. Ordainketa hori erreferentziazko interes-tasa aldakorraren gainetik ordaintzen den diferentzian joan ohi da.

Beste aukera bat da zoru bat jartzea (*floor*)⁶⁸ ez onura ateratzeko interes-tasak aipatu kuotatik behera egiten duenean. Zein izan daiteke interes-tasari zoru bat jartzearen arrazionaltasuna? Erantzuna begi-bistakoa da, zoru hori jartzeak prima bat kobratzea ekarriko baitu, eta kobrantza diferentzian berdin joango da, bere magnitudea txikiagotuz. Ekartzen al du eragiketa horrek, inoiz eremu juridikoan argudiatu den bezala, prestazio-desoreka garbi bat, interes-tasa bakarrik alde batetik bakarrik mugatua dagoelako? Erantzuna, bere eraikuntzan argi geratu den bezala, aipatu baieztapen horren guztiz aurkakoa da. Izan ere, eragiketa ongi planteatuta badago, kontratuan sartzen den diferentzialaren murrizketak aintzat hartzen du, hain zuzen, ezarritako zoruaren azpitik dauden interes-tasak geroago agertzetik etor daitezkeen onurei uko egiteak daukan merkatu-balioa. Horrenbestez, zoru-klausulak egotearekin batera, *ceteris paribus*, diferentzial txikiagoak daude, erreferentziazko interes-tasari aplikatuak. Are gehiago, erakundearen interes-tasaren arriskuaren murrizketa ekartzen duen neurrian, horrekin batera merkatuari eskaintzen zaion kredituaren bolumena emendatzea ekarriko du.

Logikoa denez, sabai bat jar daiteke eta finantzatu zoru bat erabat edo partez «salduz». Balio bereko sabaiak eta zoruak aldi berean ezartzea ekartzen duten tunele-

66. *Cap* esaten zaio denbora tarte jakin batean dauden interes-tasen (*caplet* izenekoen), gaineko *call* kate bati, eta normalean ekitaldiko interes-tasa bera izaten dute.

67. Arbitrajari ezaren oinarriko kontzeptua (arriskurik gabeko estrategia autofinantzatuak, merkatu efizienteetan errentagarritasun hutsa eskaini behar dutenak) izaten da ohiko erreferentzia finantza produktu eratorrien prezioa lortzeko.

68. *Floor* esaten zaio denbora tarte jakin batean dauden interes-tasen (*flooret* izenekoen), gaineko *put* kate bati, eta normalean ekitaldiko interes-tasa bera izaten dute.

tan (*collar* izenekoetan) ez da eraginik izango maileguaren diferentzian. Hala ere, bada guztiz asimetrikoak diren tunelak ezartzeko modua, eta, hortaz, beren prima diferentzia diferentzian sartzea. Beraz, erreferentziarekin alderatuta simetrikoak ez diren sabaiak eta zoruak ezartzea ez da, per se, mailegu-emaiaren eta mailegu-hartzailearen arteko prestazioen desorekaren ezein baldintza. Hala izango da, bakar-bakarrik, baldin eta horrek ez badu ondorio egokia eduki interes-tasaren gainean aplikatutako diferentzian.

Nahiz eta, gaur egun, klausula edo eragiketa hauen baliogabetasuna aldarrikatzeak txalo-zaparrada handia eragin, jarrera akademiko zentzudun batek ezin ditzake kondenatu orokorrean, teknikoki defendagarriak direlako, eta haiek kentzeak, nire iritziz, balizko mailegu-hartzaileei onura ekarri ez ezik, arrisku handiagoan utziko lituzke interes-tasaren ustegabeko aldaketa baten aurrean. Erreparatu zoru, sabai eta tunel hauek termino baliokideetan ezar daitezkeela, balioespen ikuspegi batek, eta, *ex-ante*, menderatu gabeko finantza-alternatibak direla; beraz, objektiboki ezin esan hobeak edo okerragoak direla edozein erabakitzailarentzat, arriskuaren aurreko jarreraren eta eragileen espektatiben mendeko direlako, argi eta garbi⁶⁹. Beraz, ikuspuntu tekniko batetik, ezin daiteke ezar inolako deskalifikaziorik interes-tasaren aldakortasunaren honelako mugatze hauen aurka, ziurtzat joz gero informazioaren, doiketaren eta baieztapenaren alderdi formalak zorrotasun guztiarekin bete direla.

Ildo horretatik doa Espainiako Bankuak Senatuari egindako txostena⁷⁰. Txosten horretan azpimarratzen da legeek honako hau agintzen dutela: «Kreditu entitateen eragiketa aktibo eta pasiboen interes-tasak askatasunez hitzartzen direnak izango dira, zein diren ere eragiketaren modalitatea eta epea, eta zein subjektuekin hitzartzen diren»⁷¹ eta «maileguari aplikatu beharreko interes-tasaren aldaketari goitik eta behetik mugak jartzen zaizkionean, aipatu muga horien berri emango da...»⁷².

69. Logikoa denez, mugatzeko klausulak jartzean prestazioaren eta kontraprestazioaren arteko konpromiso finantzarioen berdintasuna aldatzen den edo ez, ezin daiteke baieztapen orokor bat ezarri, klausulak merkatu-baldintza arrazoizkoetan ezarri diren edo ez diren, horren arabera izango baita. Aldiz, ezin baieztatu daitekeena da horiek ezartzeak zuzenean dakarrela desoreka bezeroaren eta bankuaren artean, dagoeneko esan dugulako hainbat aldiz badaitekeela merkatuen prezioetan oinarritutako baliokidetzaren bidez, diferentzial txikiagoa izatea zoru bat ezarriz, diferentzial handiagoa sabai bat ezarriz, eta zenbait konbinazio zoru-sabaien artean, beren primak diferentzian sartuta daukatela

70. *Informe del Banco de España sobre determinadas cláusulas presentes en los préstamos hipotecarios* (2010eko maiatzaren 7koa da).

71. 1989ko abenduaren 12ko Ekonomia eta Ogasunaren Ministerioaren Aginduaren lehen zenbakia.

72. *Idem* (II. Eranskina, 3.bis klausula).

Aipatzen du, baita ere, derrigorrezkoa dela mailegu-hartzaileari horren berri ematea, kontratua izenpetzen denean «Batez ere mugak ez direnean kidekoak goitik eta behetik, notarioak berariaz jasoko du gorabehera hori idazkian», eta bi aldeei horren berri emango die⁷³. Ondorioz, Espainako Bankuaren iritziz, zoru, sabai, eta zoru-sabai klausulak «baliiodunak dira, aldeen arteko hitzarmen baten ondorio direnean, eta berariaz agertzen direnean kontratuan, 1994ko maiatzaren 5eko Aginduak ezartzen duenarekin bat etorri».

Geroago dauzkaten ondorio juridiko eta ekonomikoak direla kausa, bereizi egin behar dira kontratuari gehitzen zaizkion interes-tasaren aldaketan akotazioak (lehenago aipatu interes-tasaren aldaketan mugapenak direnak), eta maileguarekin zirikusirik ez duten kontratu independenteak, maileguaren aldagarritasuna mugatzea helburu daukatenak (*cap*, *collar* eta *swap* izenekoak). Erreparatu lehenak, beren izaera dela-eta, kontratuan arautzen den zorraren kapital biziari dagozkiola. Aldiz, kontratu independenteetan, ez dira zertan bat etorri mailegua amortizatzeko dinamika, epea eta saldo bizia⁷⁴. Beste alde batetik, balioesteko logika ere ezberdina da. Lehenengoetan, kontratu bakarrak direnez, bertan behera uzteak ez du eragiten kapital bizia baino gehiago ordaindu behar izatea; edo gauzatzean hitzartutako uzte-gastuak baino gehiago ordaindu behar izatea. Bigarrenetan, kontratu bereziak direnez, mailegua uzteak ez dauka eragin zuzenik mugak ezartzen dituen kontratuan, beraz kontratuak balio positiboa edo negatiboa eduki dezake utzi nahi izanez gero⁷⁵, eta ez bada uzten, aipatu kontratuan ezarritako klausulen ondorioak diren diferentzial positibo edo negatiboak ordaindu beharko dira⁷⁶.

Mailegutik independente diren kontratu hauek famatu egin dira, batez ere, zoritarreko *swap* direlakoengatik, zer esanik ez beren negozioazio-esparrua gizabanakoentzat eta enpresa txiki eta ertainentzat ireki zenetik, eta gainera, interes-tasen be-

73. *Idem* (7.3.2. artikulua).

74. Izan ere, kontratu independente hauek kontratu estandarrak direnez, gehienetan ez dago erabateko bat-etortzea maileguaren saldo biziaren eta produktu eratorriaren saldo biziaren artean, eta normalean produktu eratorrien epea laburragoa da maileguari geratzen zaion bizi-epea baino.

75. Espero diren interes-tasak eragiketa hitzartu zenean zeudenak baino handiagoak badira, mailegua uzteak likidazio positiboa sorraraziko dio tasa finkoa ordaintzen duenari (gehienetan bezeroari). Aitzitik, espero diren tasak azpitik badaude, likidazio negatiboa sortuko da. Logikoa denez, kontratuaren nominalaren arabera ez ezik, eragiketa hitzartu zenetik kontratua bertan behera utzi arte interes-tasek jasan duten aldaketaren arabera izango da zenbatekoa.

76. Azken kasu honetan, ez dagoenez azpikorik, zeinari lotu baizitzaion estaltzeko asmoa duen kontratu eratorria, eragiketa espekulatibo bihurtzen da kontratua.

herakada harrigarri baten aldi berean gertatu zen, Europako Banku Zentralak, finantza-krisiaren ondorioak leuntzeko, egin zuen jardueren eraginez.

Komeni da esatea izen horren barruan oso ezberdinak diren produktuak sartzen direla, *swap* estandarretatik hasi (*Interest rate swaps*, IRS, edo interes-tasa aldakorrek finkoekin ordezkatzeko amerikar tasa duen mailegu baterako), eta hainbat aukera nahastuz interes-tasaren arriskuari hainbat alternatiba sortzen duten produktuetaraino (tunelak, *swap* bonifikatuak⁷⁷, *put ratio* izenekoak eta abar...). Berriz bereizi egin behar da ikuspegi teknikoaren eta merkataritza ikuspegiaren artean. Ikuspuntu tekniko batetik esan liteke produktu hauek guztiek erabakitzailearen lehentasunei ego-kiagoa zaien arrisku-kudeaketa egiteko aukera multzo bat irekitzen dutela. Hala ere, produktu hauek erabiltzean bereziki garrantzizkoak diren bi kontu aipatu behar dira. Lehena da produktuak, askotan, konplexuak direla, eta aditu baten aholkularitza beharrezkoa dela produktuen hartzailea aditua ez denean. Gehiago dena: komeni da azpimarratzea aholkularitza objektiboa izan behar dela, baina hori ez da beti bateragarria izaten kontratua egiten duten bi aldeetako batek egitearekin. Bigarren kontua da finantzatu nahi den eragiketarik kanpoko kontratuak direla. Horrek esan nahi du finantzaketa uzteak ez dakarrela ezinbestez *swap* delakoa doan uztea bertan behe-⁷⁸. Ondorioz, swaparen balioa norabidez alda daiteke bere bizitzan zehar, eta hori kontuan hartu beharrezkoa da mota honetako eragiketa bat egiten denean.

Eragiketa hauekin guztiekin sortu diren arazoez, dela kontratuan sartutako akotazioen ondorioz, dela maileguetatik independente diren kontratuak gauzatzearen ondorioz, hobetu beharko diren hainbat kontu utzi dituzte agerian, alegia:

- Araudia aldatu beharko da, finantza-produktuak kontratatzearekin ematen den «minimoetako» informazioa hobetzeko, batez ere konplexutasuna daukaten eragiketetan edo diru kopuru handiak mugitzen direnetan.
- Oinarrizko finantza prestakuntza unibertsalizatu behar dela, zeren, probabilitate handiz, bere bizitzan zehar edozein pertsonak finantza produkturen bat kontratatu beharko baitu, ez bakarrik arlo profesionalean, pertsonalean ere bai. Prestakuntzak informazio-arazoen oihartzuna txikiagotzeko aukera ematen du,

77. Interes-tasa merkatuarena baino txikiagoa duten *swap*ak dira, opzio batzuk saltzen direlako, zeinak hesi batzuk inposatzen baitituzte, *swapa* estaldurarik gabe uzten dutenak hesi horien gainetik.

78. Kontuan hartu *swapa* uzteko balioa, aldean arteko finantza-konpromisoen diferentziaren oraingo balioa bezala, aldatzen doala eragiketarik aurrera egin ahala, ez bada gertagaitzak diren baldintzak ematen direla. Adibidez, IRS estandarren kasuan, beharrezkoa da esku dirutako hurrenez hurreneko interes-tasak bat etor daitezen aipatu interes-tasa horien aurreikuspenekin eragiketa gauzatzen den unean.

edozein erabaki perspektiba handiagoarekin balioesteko bidea ematen du, eta berrikuntzari izan ohi zaion herra txikiagotzen du, berrikuntzak ez dauzkalako bakarrik elementu negatiboak (ahal den neurrian murriztu edo kendu behar direnak), baizik eta positiboak ere bai, galtzen utzi behar ez direnak.

- Finantza zerbitzuen hornitzaileak beste gainerako zerbitzu hornitzaileak bezalakoak direla ikusaraztea, pentsatu gabe zerbitzu hornitzaile arrunt batek eduki ohi duen inpartzialtasuna baino inpartzialtasun handiagoa eduki behar duela.

Interes-tasen arriskuak kudeatzeko aipatu ditugun produktuen harira, eztabaida bat egin liteke finantza-berrikuntzaren betekizunari buruz (finantza aktibo eratorriak bezalako produktuekin egiten dena, hemen azaldu direnekin, eta batez ere azken bolarada honetan bereziki gaitzetsiak izan diren *Credit Default Swaps* (CDS) direlakoekin, edo *Collateralized Debt Obligations* (CDO) direlakoekin, besteak beste); halaber, finantza-merkatuen betekizunari buruz, bereziki antolatuta ez daudenei buruz (*Over the Counter*, OTC), edo *rating-agentziei* buruz... Oso eztabaida aberasgarria izango zen, hain segur. Zoritxarrez, denbora, ikusi dugun bezala, aldagai baliotsua da, eta hurrengo batean jardun beharko dugu horretaz.

Eskerrik asko zuen arretarengatik.

Erreferentziak

- Azpilcueta, M. (1556): «Comentario Resolutorio de Cambios», A. Ullastres, J. M. Pérez eta L. Pereña (1965), *Introducción y Texto Crítico. Comentario Resolutorio de Cambios*, CSIC, Madril.
- (1565): *Comentario Resolutorio de Usuras sobre el cap.j de las question iij de la xiiij causa*, Adrian de Anuersek Lizarran inprimatua.
- Baer, F. (1970): *Die Judem im Christlichen Spanien*, Ingalaterra, 178 zk., 171-172 or.; M. Crespok bildua (2002) «Judíos, préstamos y usuras en la Castilla medieval. De Alfonso X a Enrique III», *Edad Media, Revista de Historia*, 5, 179-215 or.
- Baucells, R. (1946): «La personalidad y la obra jurídica de San Raimundo de Peñafor», *Revista Española de Derecho Canónico*, 1,1, 7-47 or.
- Blanco, S. eta Carvajal, P. (2001): *Antecedentes del Seguro a Prima* [Eprints.ucm.es/6728/1/0104.pdf].
- Boletín Oficial de las Cortes Generales* (2010): Informe del Banco de España sobre determinadas cláusulas presentes en los préstamos hipotecarios, Senatua. IX. Legegintzaldia. 2010eko maiatzaren 7a. 457 zk., 12-26 or.
- Canalejo, G. eta Cabellos, A. (2009): «Apuntes sobre los contratos ‘islámicos’ de financiación desde la perspectiva del derecho español», *Actualidad Jurídica Uría Menéndez*, 23, 21-44 or.
- De Anca, C. (2014): *Finanzas Islámicas: ¿Cuál es el interés para Europa?*, D.T. [www.iefweb.org/pdf].
- De Molina, L. (2011): *Tratado sobre los préstamos y la usura*, Francisco Gómez Camacho (ed.), Maxtor.
- Du Pasaje, H., «La doctrine a partir du XVI^e. Siecle», *Dictionnaire de Theologie Catholique*, «Usure», XV, 2 lib.; J. A. Widow (2004) liburuan aipatua: «La ética económica y la usura», *Anales de la Fundación Francisco Elías de Tejada*, 10 zk., 15-45 or.
- Fornero, R. A. (2013): *Confusión de Confusiones José de la Vega, 1688*, Universidad Nacional de Cuyo, Mendoza, Argentina.
- Franco, G. (1962): *Las Leyes de Hammurabi* (versión española, introducción y anotaciones), [rcsdigital.homestead.com/files/Vol_VI_Nm_3_1962/Franco.pdf].
- Gadea, E.; Sacristán, F.; Sequeira, A. et al (2007): *La contratación bancaria*, Dykinson.
- García Calderón, V. (1924): *Manava-Dharma-Sastra. Leyes de Manú* (gaztelaniazko bertsoa), Garnier Hermanos, Paris.
- García de la Rasilla, A. (2012): *Mitos bursátiles y burbujas financieras*, BME, Servicio de Edición Digital.

- Goetzmann, W. N. eta Rouwenhorst, K. G. (2005): *The origin of value. The financial innovations that created modern capital markets*, Oxford University Press.
- Goguet, A. Y. eta Fugère, A. C. (1794): *Del origen de las leyes, arte y ciencias y sus progresos en los pueblos antiguos*, 5 lib., Madril.
- Grice-Hutchinson, M. (1978): *Early Economic Thought in Spain 1177-1740*, George Allen & Unwin, London.
- Homer, S. eta Sylla, R. (2005): *A History of Interest Rates*, Hoboken, New Jersey: Wiley.
- Malmendier, U. (2005): «Roman Shares», W. N. Goetzmann eta K. G. Rouwenhorst, *The origin of value. The financial innovations that created modern capital markets*, Oxford University Press, 31-42 or.
- Marlasca, O. (2008): «El préstamo de géneros en la sociedad romana, visigoda y en algunos reinos cristianos de la Alta Edad Media», *Anuario da Facultade de Dereito da Universidade da Coruña*, 12 zk., 2008, 599-614 or.
- Mastrofini, M. (1859): *Tratado de la Usura* (espainierazko itzulpena: Mariano José de Ibarregui), Bartzelona.
- Mercado, T. (1571): *Suma de Tratos y Contratos*, Nicolás Sánchez de Albornozen edizioa, Instituto de Estudios Fiscales, Madril, 1977.
- Moral, G. (1954): *Código Social de Malinas*, 139 zk.
- Oliva, N. (ed.) (1830): *Biografía Universal Compendiada*, Bartzelona.
- Openheimer, D. (2010): *La vida de tu hermano. Leyes de Ribit y Heter Iská*, Adjut Israel, Buenos Aires.
- Ourliac, P. eta De Malafosse, J. (1969): *Histoire de Droit privé 1, Les Obligations*, 2. ed., Paris, 247-248 or.
- Rothbard, M. N. (2006): *Economic Thought before Adam Smith: An Austrian perspective on the history of economic thought*, Ludwig von Mises Institute, Auburn, Alabama.
- Salazar, M. (1999): *La gratuidad del «mutuum» en el Derecho romano*, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Jaén.
- Sanchez, P. (2006): «La banca islámica: situación actual y retos», *Revista de la SEECI*, 13, 52-77 or.
- Schwartz, P. (2003): «El legado de la Escuela de Economía de Salamanca: una Estimación Actual», *Estudios de Historia y de Pensamiento Económico: homenaje al profesor Francisco Bustelo García del Real*, Complutense, Madril.
- Securities and Investment Institute eta École Supérieure des Affaires (eds.) (2007): *Islamic Finance Qualification. The Official Workbook*, 2. ed.

- Ullastres, A. (1965): «Las ideas económicas de Azpilcueta», A. Ullastres, J. M. Pérez eta L. Pereña, *Introducción y Texto Crítico. Comentario Resolutorio de Cambios*, CSIC, Madril.
- Van de Mieroop, M. (2005): «The invention of Interest», W. N. Goetzmann eta K. G. Rouwenhorst, *The origin of value. The financial innovations that created modern capital markets*, Oxford University Press, 17-30 or.
- Widow, J. A. (2004): «La ética económica y la usura», *Anales de la Fundación Francisco Elías de Tejada*, 10 zk., 15-45 or.
- Zambrana, P. (2001): *Derecho Concursal Histórico I: Trabajos de Investigación*, Bartzelona, 35-47 or.

